

INTERES-GATAZKAK KUDEATZEKO POLITIKA

Kutxabanken interes-gatazkak kudeatzeko Politikaren xedea da Kutxabanken interes-gatazka potentzial edo errealen kudeaketa erregulatzea, zein egoeretan sor daitezkeen identifikatzea eta ondo kudeatzeko jarraitu beharreko prozedurak ezartzea.

Politika hau Kutxabankeko langile guztiei ezarri ahal zaie, baita Administrazio Kontseiluko kideei ere, horietako batzuek Kutxabank Taldeko finantza sozietateetan burutzen duten jarduerari lotutako beste barne araudi baten menpe ere egoteari kalterik egin gabe, zeinetan interes-gatazkei dagozkien jarraibideak barne hartzen diren. Horiei guztiei egingo zaie erreferentzia politikan “pertsona eskudunak” adierazpena erabiltzean.

Interes-gatazka egon dela ulertuko da Kutxabankek edo Pertsona Eskudunek:

- (a) Finantza mozkina lor dezaketenean edo finantza galera bat ekidin, bezeroaren kontura.
- (b) Bezeroari eman zaion zerbitzu baten emaitzan edo bezeroaren kontura egindako eragiketa baten emaitzan interesa dutenean eta interes hori ez datorrenean bat bezeroak berak duenarekin.
- (c) Finantza pizgarriak edo beste mota batekoak dituztenean, beste bezero edo bezero talde baten interesak bultzatzeko, lehenengo bezeroaren interesen aldean.
- (d) Bezeroak duen jardun bera dutenean.
- (e) Bezeroa ez den beste pertsona batetik pizgarria jasotzen badute edo jasoko badute, bezeroari eman dioten zerbitzu batekin zerikusia duena, dirutan, ondasunetan edo zerbitzutan, aipatutako zerbitzu horrek duen ohiko komisioa edo ordainsariaz gain.

Interes-gatazkak identifikatzea eta erregistratzea

Kutxabankek erabiltzaile baten edo gehiagoren interesen galera ekar dezaketen interes-gatazken eguneratutako katalogoa dauka, baita gatazka horiek kudeatzeko jarraitu beharreko prozedurena eta hartu beharreko neurriena ere. Katalogo horretan interes-gatazkari dagokionez garrantzitsua den informazio guztia agertzen da.

Gainera, Kutxabankek eman diren interes-gatazka guztiak dituen eguneratutako erregistroa dauka, pertsonen, finantza instrumentuen eta ematen den egoerei buruzko informazio guztia barne hartuko duena.

Interes-gatazkak Kudeatzeko Irizpide Orokorrak

Pertsona Eskudunek euren zerbitzuak edota jarduerak zintzotasunez, inpartzialtasunez eta profesionaltasunez burutu beharko dituzte, Politikan zein beste arau eta barne prozeduretan ezarritako printzipio orokorrak aintzat hartuz (erabiltzaileen informazioaren konfidentzialtasuna, funtzioen bereizketa, abstentzioa eta komunikazioa).

Interes-gatazkak bezeroari jakinaraztea

Interes-gatazkak kudeatzeko ezarritako neurriak Kutxabanken ustez erabiltzaile bat edo erabiltzaile talde bat kaltetua izateko arriskua ekiditeko nahikoak ez direnean, Kutxabankek kaltetuari gatazkaren izaera jakinarazi beharko dio, iraunkorra den euskarri batean, baita gainontzeko egoerak ere, Erakundearekin kontratatu beharreko produktuaren edo zerbitzuaren gaineko arrazoitutako erabaki bat hartzeko aukera ematen diotenak.